

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
Atala:	0220 - Ingurumen Administrazio Zuzendaritza Nagusia
Programa:	210 - Ingurumen-administrazioa
Funtzionala:	170 - Ingurumenaren administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Ingurumenaren babes eraginkorra lortzea, lurraldearen erabilerak eta jarduera ekonomikoak garatzen diren ingurunearekin bateragarri eginez, eta jasangarritasun-irizpideak hartzea sustatuz hainbat sektoretan (administrazioa bera barne) eragindako baliabide naturalak eta gainerako ingurumen-faktoreak babesteko, baita herritarrek lurraldearen garapen jasangarrian parte-hartze aktiboa izatea ere.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoa lurralde oso antropizatua da, biztanleria-dentsitate handikoa eta industrializazio handikoa. Ingurumen-ikuspegi hutsetik, bi faktore horiek mehatxua dira lurraldeko ingurumen-kalitatetarako eta natura-baliabideetarako, eta, oro har, presio handia jasaten dutela esan daiteke.

Gainera, klima-alaketaren ondorioek, hala nola tenperaturen eta lehorte-aldien igoerak edo muturreko gertaeren maiztasun handiagoak, are gehiago areagotzen dute baliabide horien kalteberatasuna.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere ingurumen-administrazio organotik, ibilbide luzea du planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioan, eta, indarrean dauden lege-xedapen guztiak betetzen direla zaintzeaz gain, erreferentziazko eta laguntzako erakunde gisa jarduten du arlo horretan Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrientzat eta inplikaturako gainerako eragileentzat (Gipuzkoako Foru Aldundiko beste sail batzuk eta beste administrazio batzuk, sustatzaile publiko edo pribatuak, herritarrak, erakundeak, eta abar).

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legea onartuta, GFAk arlo horretan dituen eskumenak zabaltzeko, eta 10.000 biztanletik beherako udalek eta hala eskatzen duten biztanle gehiagoko udalek jardura sailkatuaren lizentzia emateko prozeduran neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzeko ardura duen organoa ere izatera igaro da.

Era berean, Legeak EAEko administrazio publikoen esku uzten du ingurumena hobetzeko hainbat tresna bultzatzea eta sustatzea. Tresna horiek guztiak borondatezkoak dira, eta sektore pribatuari, administrazio publikoari eta herritar guztiei zuzenduta daude.

Beharrendaren deskribapen xehatua:

Lurraldearen ingurumen-administrazioa funtsezkoa da herritarrek pertsonen garapenerako ingurumen egokiaz gozatzeko duten eskubidea bermatzeko.

Planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa egiteko eta sailkatutako jardueretan neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzeko administrazio-prozedurak, norabide horretan doazenak, ingurumena hobetzen eta lurraldearen jasangarritasuna hobetzen laguntzen ari dira. Horregatik, beharrezkoa da horiek bultzatzen jarraitzea eta ahalik eta eraginkortasunik handienara eramatea, udalekin eta lurraldeko gainerako eragileekin lankidetzan estuan, indarrean dagoen ingurumen-legeriari eta haren aplikazioari buruzko informazio eta orientazio onena bermatuz.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da administrazio publikoan ingurumen-irizpideak xertatzeko lanean aurrera egitea, ez soilik haren jarduerak ingurumenean duen eraginagatik, baita dagokion eredu-lanarengatik ere, bai gainerako toki-erakundeei dagokienez, bai gizarte osoari dagokienez. Ildo horretan, erorsketa eta kontratazio publiko berdea bultzatzea eta haren ingurumen-aztarna murriztea Zuzendaritza honek bultzatu beharreko funtsezko tresnatzat hartzen dira.

Enpresa-ehunari bere jardueraren ingurumen-hobekuntzan laguntzea garrantzi handiko beste eremu bat da. Horretarako, etiketa ekologikoa edo Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Europako Sistema (EMAS) bezalako tresnak sustatzeaz gain, funtsezkotzat jotzen da Aldundiak fiskalitatearen bidez ingurumen-hobekuntzak lortzeko duen gaitasuna indartzea.

Nori zuzendua:

Udalak, GFAko sailak, beste administrazio batzuk, lurraldeko enpresak eta gizarte-erakundeak eta herritarrak, oro har.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

- Berezko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak.
- Kanpoko laguntzak kontratatzea.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Espedienteak aztertzea eta txostenak egitea.
- Irizpide eta gomendio teknikoak lantzea.
- Lurraldeko erakunde eta eragileekin informazioa emateko, bilerak egiteko eta koordinatzeko jarduerak.
- Kontsultak jasotzea eta kudeatzea, eta eragile interesdunei erantzutea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Txosten eta irizpen teknikoak.
- Ingurumen-ebaluazioko prozeduretako txostenak eta ingurumen-adierazpenak.
- Sailkatutako jardueretarako neurri babesle eta zuzentzaileei buruzko txostenak.
- Azterlanak

Programaren arau esparrua:

- Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legea.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legea.
- Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzeari buruzko 49/2009 Dekretua.
- Sozietateen gaineko zergari buruzko 2/2014 Foru Araua (65. artikulua) eta 17/2015 Foru Dekretua (36.3 artikulua).
- Aplikatzekoa den ingurumen-araudi sektoriala (airea, hondakinak, ura, biodibertsitatea, zarata, etab.)

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua:


Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Birziklatze tasa (%)	Ehunekoa	>=	55,00	57,00	57,00	60,00
Energia komunitateen kopurua	Kopurua	=	60,00	70,00	72,00	94,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Foru Aldunditik erosketa publiko berdean sakontzen jarraitzea.



Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
----------------------	---------------------------	---------------	--------------	--------------	--------------------

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	50.821,65			2026/01/01	2026/12/31	
1.1 Ekintza Erosketa eta kontratazio berde eta zirkularraren irizpideak eta gomendioak lantzea eta sustatzea	50.821,65			2026/01/01	2026/12/31	
DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA						
Urteko helburua:	Plan, proiektu eta jardueren, eta erosketa eta kontratazioaren ingurumen-inpaktuak prebenitzea, zuzentzea eta konpentsatzea.					
Adierazlea	Neurri- unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Epe barruan egindako ingurumen ebaluazioko txostenen ehunekoa	Ehunekoa	>=	100,00	90,00	100,00	100,00
Epe barruan egindako neurri babesle eta zuzentzaileen txostenen ehunekoa	Ehunekoa	>=	95,00	92,00	100,00	100,00
Erosketa eta Kontratazio berde eta zirkulararen irizpideak eta gomendioak lantzen eta sustatzen	Ehunekoa	>=	70,00	60,00	70,00	80,00
Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak						
1. Ekintza lerroa: LI.1661 - Plan, programa, proiektu eta jardueretan ingurumen- eta klima-inpaktuak prebenitzea eta zuzentzea.						
 % 46,23  % 40,99  % 12,78						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	265.167,70			2026/01/01	2026/12/31	
1.1 Ekintza Plan eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa	108.702,75			2026/01/01	2026/12/31	
1.2 Ekintza Sailkatutako jarduerak babesteko eta zuzentzeko neurriak ezartzea	88.702,75			2026/01/01	2026/12/31	
1.3 Ekintza Ingurumen-egokitasunaren ziurtagiriak ematea	33.881,10			2026/01/01	2026/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.4 Ekintza Betelanak egiteko baimenak	33.881,10			2026/01/01	2026/12/31	
2. Ekintza lerroa: Ingurumenaren hobekuntza bultzatzeko tresnak definitzea eta abian jartzea						
 % 0,25		 % 99,75				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	138.288,82			2026/01/01	2026/12/31	
2.1 Ekintza GLH-aren ingurumen hobekuntzarako tresnak	48.381,10			2026/01/01	2026/12/31	
2.2 Ekintza Jasangarritasun Azterlanak GJH	338,82			2026/01/01	2026/12/31	
2.3 Ekintza Tokiko Plan Jasangarrien azterlanak	40.338,82			2026/01/01	2026/12/31	
2.4 Ekintza Erakusketak eta Lehiaketak	5.338,82			2026/01/01	2026/12/31	
2.5 Ekintza Ingurumen-Fiskalitatea	338,82			2026/01/01	2026/12/31	
2.6 Ekintza Ekintza berritzaileak	43.552,44			2026/01/01	2026/12/31	
3. Ekintza lerroa: Erosketa eta kontratazio berde eta zirkularraren irizpideak eta gomendioak lantzea eta sustatzea						
 % 16,67		 % 83,33				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	2.032,87			2026/01/01	2026/12/31	
3.1 Ekintza Erosketa Publiko Berdea eta Ekitaldien Ingurumen-Ikuspegia	338,82			2026/01/01	2026/12/31	
3.2 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratueta edota	1.694,05			2026/01/01	2026/12/31	

Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
dirulaguntzetan hizkuntza- klausula berriak txertatu.					

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Beharrezkoa da ordezkartza-lanpostu publikoetan eta administrazioan bertan emakumeen presentzia sustatzen jarraitzea; izan ere, nahiz eta arlo horretan aurrerapen handiak egin diren, oraindik bidea egin behar da. Programa honi lotutako ekintzen kasuan, garrantzitsua da, halaber, emakumeen presentzia orekatua bermatzen jarraitzea ekintzen multzoan eta planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioari lotutako dokumentuen prestaketan, bai eta jarduera sailkatuetarako lizentzia emateko prozeduran ere.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Toki-administrazioei zuzendutako administrazio izapideek programa honetan duten garrantzia kontuan hartuta, udal bakoitzaren hizkuntza aukera errespetatzeari arreta berezia eskainiko zaio. Bestalde, azterlanak eta proiektuak kontratatzerakoan, hizkuntza-irizpideak hartuko dira kontuan, hizkuntza berdintasuna bermatzeko.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa horrek 11. (HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK), eta 15. (LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA) GIHei laguntzen die batez ere.

Kuantifikazioa: 456.311,04 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 4-Kalitatezko hezkuntza Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.	Helburua	4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.	338,82
	Ekintza lerroak		
		Ingurumenaren hobekuntza bultzatzeko tresnak definitzea eta abian jartzea	338,82
 9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.	Helburua	9.4 - 2030. urterako, azpiegiturak modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen araberako neurriak har ditzatela lortu behar da	122.583,85
	Ekintza lerroak		
		LI.1661 - Plan, programa, proiektu eta jardueretan ingurumen- eta klima-inpaktuak prebenitzea eta zuzentzea.	122.583,85
 11-Hiri eta komunitate jasangarriak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	Helburua	11.a - Hiriguneen, hiri inguruko guneen eta landaguneen arteko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-harreman positiboak laguntzea, udal eta foru garapenaren plangintza indartuz.	246.652,75
	Ekintza lerroak		
		LI.1661 - Plan, programa, proiektu eta jardueretan ingurumen- eta klima-inpaktuak prebenitzea eta zuzentzea.	108.702,75

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	11.b - Gizarteratzea, baliabideen erabilera eraginkorra, klima aldaketa arintzea eta hondamendien aurreko erresilientzia sustatzeko politika eta plan integratuak ezartzen dituzten hiri eta giza kokaguneen kopurua nabarmen handitzea, eta, 2015-2030 urteetan hondamendi arriskua gutxitzeko Sendai Esparruarekin bat etorriz, hondamendi arriskuaren kudeaketa integrala praktikan jartzea maila guztietan.	137.950,00	
Ekintza lerroak			
	Ingurumenaren hobekuntza bultzatzeko tresnak definitzea eta abian jartzea	137.950,00	
	12-Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.	51.160,47	
Helburua	12.7 - Erosketa publikoko politika jasangarriak sustatzea, Gipuzkoako politika eta lehenetsuen arabera.	51.160,47	
Ekintza lerroak			
	Erosketa eta kontratazio berde eta zirkularraren irizpideak eta gomendioak lantzea eta sustatzea	338,82	
	Foru Aldunditik erosketa publiko berdean sakontzen jarraitzea.	50.821,65	
	15-Lehorreko ekosistemetak bizitza Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeko eta modu jasangarriarean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriarean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.	33.881,10	
Helburua	15.3 - 2030. urterako, desertifikazioari aurka egitea, lur eta lurzoru degradatuak birgaitzea (desertifikazioek, lehorteek eta uholdeek kalteetako lurak barne) eta lurzoruaren degradazioaren eragin neutroa izango duen mundu bat lortzen saiatzea	33.881,10	
Ekintza lerroak			
	LI.1661 - Plan, programa, proiektu eta jardueretan ingurumen- eta klima-inpaktuak prebenitzea eta zuzentzea.	33.881,10	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	1.694,05	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	1.694,05	
Ekintza lerroak			
	Erosketa eta kontratazio berde eta zirkularraren irizpideak eta gomendioak lantzea eta sustatzea	1.694,05	
Guztira		456.311,04	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	2026	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2027	2028	2029	2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	292.778,00	338.811,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	149.500,00	117.500,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	442.278,00	456.311,00					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	442.278,00	456.311,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	50.821,65	287.989,39			50.821,65	287.989,39
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		117.500,00				117.500,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	50.821,65	405.489,39			50.821,65	405.489,39
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	50.821,65	405.489,39			50.821,65	405.489,39